

2024ko martxoan esportazioek % 23,7 egin dute atzera Euskal AEn

Lehen hiruhilekoko metatuan atzerakada % 15,9koa izan da, eta hiru lurraldeek datu negatiboak izan dituzte

Euskal AEko ondasunen **esportazioak** 2.528,9 milioi eurora iritsi ziren 2024ko martxoan, aurreko urteko hil berean baino % 23,7 gutxiago, Eustatek landutako datuen arabera. Produktuei erreparaturaz, esportazio energetikoak % 25,9 gehitu ziren eta ez-energetikoak % 26 jaitsi.

Inportazioen kasuan, % 17,1eko beherakada izan da, produktu energetikoen kasuan % 6,8koa eta ez-energetikoen kasuan % 20,6koa.

Merkataritza-saldoa positiboa da, 398 milioi eurokoa, % 118,7ko estaldura-tasarekin.

Euskal AEko ondasunen kanpo-merkataritzaren bilakaera. Milaka eurotan. Martxoa 2024

	ESPORTAZIOAK			INPORTAZIOAK		
	Martxoa			Martxoa		
	2023	2024	Gehikuntza (%)	2023	2024	Gehikuntza (%)
EUSKAL AE						
HILABETEA, GUZTIRA	3.312.340	2.528.851	-23,7	2.571.241	2.130.534	-17,1
ENERGIAZKO GAIAK	149.346	187.997	25,9	647.674	603.398	-6,8
ENERGIAZKOAK EZ DIREN GAIAK	3.162.993	2.340.854	-26,0	1.923.567	1.527.136	-20,6
URTEKO METATUA	8.956.292	7.528.986	-15,9	7.127.682	6.507.274	-8,7
ENERGIAZKO GAIAK	504.110	505.373	0,3	1.699.600	1.801.860	6,0
ENERGIAZKOAK EZ DIREN GAIAK	8.452.182	7.023.612	-16,9	5.428.082	4.705.414	-13,3
ARABA / ÁLAVA						
HILABETEA, GUZTIRA	980.701	746.489	-23,9	592.886	477.555	-19,5
URTEKO METATUA	2.858.942	2.299.984	-19,6	1.599.752	1.388.286	-13,2
BIZKAIA						
HILABETEA, GUZTIRA	1.247.959	969.049	-22,3	1.501.720	1.247.225	-16,9
URTEKO METATUA	3.407.314	2.870.795	-15,7	4.153.270	3.867.333	-6,9
GIPUZKOA						
HILABETEA, GUZTIRA	1.083.680	813.313	-24,9	476.635	405.754	-14,9
URTEKO METATUA	2.690.035	2.358.206	-12,3	1.374.659	1.251.655	-8,9

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika

Data 2022ko Ekainaren 16a

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika

Hilabete honetan, Arabako esportazioak % 23,9 jaitsi dira, Bizkaikoak % 22,3 eta Gipuzkoakoak % 24,9. Esportazio energetikoak, Bizkaian, % 28,3 gehitu dira aurreko urteko hil beraren aldean.

Bilakaera horiek baloratzeko orduan, kontuan izan behar da 2023ko martxoan esportazioek 3.312,3 milioi euroko zifra errekorra lortu zutela.

2024ko martxoan merkaturatutako produktuak

Produktuen xehetasunei dagokienez, ikus daiteke 2024ko martxoan hamar muga-zergen partida nagusiek **esportazioen** % 39,5 bildu zituztela, 999,4 milioi euroko baterako balioarekin.

25 muga-zergen partida nagusien taldean, azpimarratzekoak dira horietako lautan izandako hazkundeak: "*Petrolioaren olio finduak*" (% 22,5 eta 166,4 milioi esportatu), "*Trenbideetarako eta tranbia autopropulstsatueterako automotoreak*" (% 37,6 eta 42,4 milioi), "*Aluminiozko txapak eta tirak, 0,2 mm-tik gorako lodierakoak*" (% 86,7) eta "*Beste inon sartzen ez diren bestelako makina eta aparatu mekanikoak*" (% 164,8).

"10 pertsona baino gutxiagoko turismoak" % 35,6 jaitsi dira, "*Salgaiak garraiatzeko ibilgailu automobilak*" % 12,4, "*Kautxuzko pneumatiko berriak*" % 39,8, "*Hodi eta profil hutsak, soldadurarik gabeak, burdinazkoak edo altzairuzkoak*" % 53,6, "*Ibilgailuen zatiak eta osagarriak*" % 16,2 eta "*Burdinazko edo aleatu gabeko altzairuzko profilak*" % 51,5.

Inportazioen kasuan, eta muga-zergen 25 partida garrantzitsuenen kasuan, hazkunde esanguratsuak honako hauetan kontzentratzen dira: "*Petrolioaren edo mineral bituminosoaren olio gordinak*" (% 2,7 eta 382,0 milioi inportatu), "*Petrolioaren olio finduak*" (% 19,1 eta 215,9 milioi), "*Enbolo, diesel edo erdi-diesel motorrak*" (% 15,8), "*Ibilgailu automobilen zatiak eta osagarriak*" (% 8,9) eta "*Nikel gordin aleatu edo aleatu gabea*" (% 46,7).

Jaitsiera esanguratsuenak hurrengo produktuetan izan dira: "*Motor eta sorgailu elektrikoak (multzo elektrogenoak izan ezik)*" (-% 65,8), "*Soja-babak, hautsiak ere bai*" (-% 53,4), "*Ferroaleazioak*" (-% 44,6), "*Produktu lau ijeztuak, aleatu gabeko burdinazkoak edo altzairuzkoak, baina xaflatuak edo estaliak > 599 mm*" (-% 37,6), "*Burdinurtuzko, burdinazko edo altzairuzko txatarra*" (-% 35,9), "*Berotan ijeztutako produktu lauak, aleatu gabeko eta txapatu edo estali gabeko produktuak > 599 mm*" (-% 32,6) eta "*Metagailu elektrikoak eta horien zatiak*" (-% 21,9).

Euskal AEko hileko esportazioen rankinga, arantzel-partiden arabera. Milaka euro (p). Martxoa 2024

	2023	2024	2024 (%)	2024/2023 (%)
ESPORTAZIOAK GUZTIRA	3.312.340	2.528.851	100,0	-23,7
Automobilentzako zati eta osagarriak	225.922	189.415	7,5	-16,2
10 pertsona baino gutxiagoko turismoak	275.525	177.570	7,0	-35,6
Zamak garraiatzeko ibilgailu automobilak	193.361	169.366	6,7	-12,4
Petrolioaren olio finduak	135.832	166.400	6,6	22,5
Kautxuzko pneumatiko berriak	140.974	84.934	3,4	-39,8
Txorrotetarako artikulak, balbulak eta antzekoak tutuetarako	56.963	48.304	1,9	-15,2
Burdinazko edo aleatu gabeko altzairuzko profilak	98.254	47.651	1,9	-51,5
Automotorrak, trenbideetarako eta tranbia autopropulsatuetarako	30.839	42.438	1,7	37,6
Hodiak eta profilak hutsak, soldadurarik gabe, burdinazko edo altzairuzkoak	87.334	40.512	1,6	-53,6
Burdina edo altzairuzko gainerako enbriak	40.690	32.801	1,3	-19,4
Transformadore elektrikoak, bihurtzaileak eta erreaktoreak	37.187	32.655	1,3	-12,2
Turborreaktoreak, turbopropulsatzaileak eta gainerako gas-turbinak, bere piezak eta osagaiak barne	23.193	28.715	1,1	23,8
Igogailuak, eskailera mekanikoak, garraiagailuak, etab.	26.203	26.981	1,1	3,0
0,2 mm baino gehiagoko lodiera duten aluminiozko xafiak eta tirak	13.607	25.406	1,0	86,7
Altzairu herdoilgaitzezko barra eta profilak	41.628	23.511	0,9	-43,5
Koadroak, taulak eta kontrolerako edo elektrizitate-banaketatara euskarriak	24.898	22.926	0,9	-7,9
Gainerako altzairu aleatuen barrak eta profilak eta zultzeko barra hutsak	37.292	22.317	0,9	-40,2
Transmisio-ardatzak, kojinetak, engranajeak, enbrageak, etab.	27.322	21.394	0,8	-21,7
Ardoa, mahats freskoarena	22.302	21.006	0,8	-5,8
Gidaria barne hamar pertsona edo gehiago eramateko ibilgailu automobilak	14.625	20.738	0,8	41,8
Galdaketa, burdina edo altzairuzko beste enbriak	28.351	20.087	0,8	-29,2
84. kapituluaren sartzen ez diren beste makina eta aparatu mekaniko batzuk	7.485	19.823	0,8	164,8
Burdinako edo altzairuzko beste tutu batzuk eta profil hutsak	25.683	19.093	0,8	-25,7
Motor eta sorgailu elektrikoak (ekipo elektrogenoak izan ezik)	20.057	18.856	0,7	-6,0
Metal arruntzeko giltzarriak, sarriak, morroiloak eta giltzak	22.044	18.241	0,7	-17,3

(p)Behinbehineko datuak

Data 2024ko Maiatzaren 20a

Iturria: Eustat. Kanpo-merkatutzaren estatistika

ARABA. 2024ko martxoko esportazioak

Araban esportazioak % 23,9 gutxitu dira aurreko urteko hil beraren aldean. Portaera hori, funtsean, honako hauetan zentratzen da: "10 pertsona baino gutxiagoko turismoak" (-% 35,8, 175,3 milioi); "Salgaiak garraiatzeko ibilgailu automobilak" (-% 12,5, 168,9 milioi esportatuta), eta "Hodi eta profil hutsak, soldadurarik gabeak, burdinazkoak edo altzairuzkoak" (31,8 milioi eta -% 56,9).

Hala ere, "Kautxuzko pneumatiko berriak" (62,1 milioi) % 10,3 hazi dira.

Arabako hileko esportazioen rankinga, arantzel-partiden arabera. Milaka euro (p). Martxoa 2024

	2023	2024	2024 (%)	2024/2023 (%)
ESPORTAZIOAK GUZTIRA	980.701	746.489	100.0	-23,9
10 pertsona baino gutxiagoko turismoak	273.206	175.280	23,5	-35,8
Zamak garraiatzeko ibilgailu automobilak	192.993	168.859	22,6	-12,5
Kautxuzko pneumatiko berriak	56.263	62.072	8,3	10,3
Automobilentzako zati eta osagarriak	43.438	36.085	4,8	-16,9
Hodiak eta profilak hutsak, soldadurarik gabe, burdinazko edo altzairuzkoak	73.757	31.774	4,3	-56,9
Ardoa, mahats freskoarena	20.212	18.433	2,5	-8,8
Burdinako edo altzairuko beste tutu batzuk eta profil hutsak	16.567	13.382	1,8	-19,2
Motorra duten edo ez duten aireontzien zatiak, tripulatuak izan edo ez, eta satellite eta ibilgailu espazialen zatiak	11.860	11.658	1,6	-1,7
Koadroak, taulak eta kontrolerako edo elektrizitate-banaketarako euskarriak	8.243	8.213	1,1	-0,4
Garraiatzeko edo ontziratzekeo beirazko ontziak	8.747	7.470	1,0	-14,6

(p)Behinbehineko datuak

Data 2024ko Maiatzaren 20a

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika

BIZKAIA. 2024ko martxoko esportazioak

Bizkaiko lurralde historikotik egindako esportazioek % 22,3 egin dute behera, honako produktu garrantzitsu hauen jaitsieren ondorioz: "Kautxuzko pneumatiko berriak" (-%73,5, 61,9 milioi gutxiago), "Altzairu herdoilgaitzezko barra eta profilak" (-%50,3), "Xerratu gabeko arrain izoztua" (-%37,2), "Gainerako aleazio-altzairu eta zulatzeko barra hutsetako barrak eta profilak" (-%32,0) eta "Ibilgailuen zatiak eta osagarriak" (-%20,2). Produktu horiek eragin dute emaitza negatibo horren % 41,8 Bizkaian.

Nabarmentzekoa da "Petrolio-olio finduak", atzeraldi-garai baten ondoren, % 25,0 hazi direla eta 164,8 milioira iritsi direla.

Bizkaiko hileko esportazioen rankinga, arantzel-partiden arabera. Milaka euro (p). Martxoa 2024

	2023	2024	2024 (%)	2024/2023 (%)
ESPORTAZIOAK GUZTIRA	1.247.959	969.049	100.0	-22,3
Petrolioaren olio finduak	131.791	164.803	17,0	25,0
Automobilentzako zati eta osagarriak	97.136	77.560	8,0	-20,2
Turborreaktoreak, turbopropulsatzaileak eta gainerako gas-turbinak, bere piezak eta osagaiak barne	23.018	28.404	2,9	23,4
Transformadore elektrikoak, bihurtzaile estatikoak eta erreaktantzia-bobina	32.965	27.766	2,9	-15,8
Kautxuzko pneumatiko berriak	84.163	22.269	2,3	-73,5
0,2 mm baino gehiagoko lodiera duten aluminiozko xafiak eta tirak	7.092	18.794	1,9	165,0
Altzairu herdoilgaitzezko barra eta profilak	35.991	17.878	1,8	-50,3
Medicamentos para usos terapéuticos o profilácticos, sin dosificar, para la venta mayorista. ##	6.744	17.457	1,8	158,9
Arrain izoztua xerratu gabe	25.297	15.877	1,6	-37,2
Gainerako altzairu aleatuen barrak eta profilak eta zulatzeko barra hutsak	23.275	15.834	1,6	-32,0

(p)Behinbehineko datuak

Data 2024ko Maiatzaren 20a

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika

GIPUZKOA. 2024ko martxoko esportazioak

Gipuzkoako esportazioek % 24,9 egin dute atzera hilabete honetan, nahiz eta hazkunde nabarmenak izan diren honako partida hauetan: "Trenbideetarako automotorrak eta tranbia autopropulstatuak" (% 37,6, 42,4 milioi euro esportatuta) eta "Hamar pertsona edo gehiago garraiatzeko ibilgailu automobilak, gidaria barne" (% 63,5 eta 20,7 milioi), ez baitituzte beste partida batzuen atzerakadak konpentsatzen, hala nola: "Burdinazko edo aleatu gabeko altzairuzko profilak" (-% 55,2) eta "Ibilgailuen zatiak eta osagarriak" (-% 11,2).

Gipuzkoako hileko esportazioen rankinga, arantzel-partiden arabera. Milaka euro (p). Martxoa 2024

	2023	2024	2024 (%)	2024/2023 (%)
ESPORTAZIOAK GUZTIRA	1.083.680	813.313	100,0	-24,9
Automobilentzako zati eta osagarriak	85.347	75.770	9,3	-11,2
Automotorrak, trenbideetarako eta tranbia autopropulstatuak	30.839	42.438	5,2	37,6
Burdinazko edo aleatu gabeko altzairuzko profilak	92.888	41.580	5,1	-55,2
Txorrotetarako artikulak, balbulak eta antzekoak tutuetarako	37.724	35.871	4,4	-4,9
Igogailuak, eskailera mekanikoak, garraiagailuak, etab.	22.452	24.187	3,0	7,7
Gidaria barne hamar pertsona edo gehiago eramateko ibilgailu automobilak	12.665	20.703	2,5	63,5
Burdina edo altzairuzko gainerako manufaktura	21.232	16.999	2,1	-19,9
Metal arruntezko giltzarriak, sarraia, morroilo eta giltzak	20.536	16.442	2,0	-19,9
Burdinbide eta antzekoetarako ibilgailuen parteak	20.062	14.679	1,8	-26,8
Motor eta sorgailu elektrikoak (ekipo elektrogenoak izan ezik)	15.104	12.527	1,5	-17,1

(p)Behinbehineko datuak

Data 2024ko Maiatzaren 20a

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika

Xede-herrialdeak, 2024ko martxoa

Hil honetan, bost herrialde dira Euskal AEko bezero nagusiak: Frantzia, Alemania, Estatu Batuak, Italia eta Erresuma Batua. Esportatutako guztiaren % 51,5 (1.303 milioi) bereganatzen dute, eta horietako hiru EB-27koak dira; eta erakunde horrek % 65,6 biltzen du.

Frantzia, 460,5 milioi euroekin, herrialdeen rankingeko lehen postuan dago esportazioen helburuaren arabera, eta, 700 produktu-moten artean, hauek nabarmentzen dira: "Petrolio-olio finduak" (100,3 milioi), "Ibilgailu automobilen zatiak eta osagarriak" (32,4 milioi), "Kautxuzko pneumatiko berriak" (21,0 milioi), "Salgaiak garraiatzeko ibilgailu automobilak" (17,9 milioi) eta "10 pertsona baino gutxiagoko turismoak" (11,4 milioi).

Alemaniarako esportazioak 374,7 milioi eurokoak izan dira hilabete honetan, eta batez ere automobilaren sektorearekin lotutakoetan kontzentratzen dira (guztizkoaren % 50,2): "10 pertsona baino gutxiagoko turismoak" (84,5 milioi), "Salgaiak garraiatzeko ibilgailu automobilak" (51,2 milioi), "Ibilgailu automobilen zatiak eta osagarriak" (37,5 milioi) eta "Kautxuzko pneumatiko berriak" (14,8 milioi), 418 produktu desberdinetarako.

Estatu Batuetara 160,2 milioi euroko esportazioa egin da. Erosketen buruan "Biodiesela eta haren nahasketak" (12,8 milioi), "Soldadurarik gabeko burdinazko edo altzairuzko hodi eta profil hutsak" (12,2 milioi) eta "Turborreaktoreak, turbopropulstazileak eta gainerako gas-turbinak, horien zatiak eta osagaiak barne" (10,5 milioi) daude, 334 produktu desberdinentzat.

Italiak, hil honetan, Euskal AEko esportazio guztien % 6,3 hartzen du (159,5 milioi), eta bere transakzioetan automobilgintza da nagusi: "Salgaiak garraiatzeko ibilgailu automobilak" (12,6 milioi), "Kautxuzko pneumatiko berriak" (9,2 milioi), "10 pertsona baino gutxiagoko turismoak" (8,1 milioi), "Ibilgailu automobilen zatiak eta osagarriak" (4,9 milioi) eta "Hamar pertsona edo gehiago garraiatzeko ibilgailu automobilak" (4,7 milioi).

Erresuma Batua bosgarren postuan dago hilabete honetan, 148,0 milioirekin; horietatik 13,8 milioi "Turborreaktoreak, turbopropulsaileak eta gainerako gas-turbinak, horien zatiak eta osagaiak barne", 12,3 milioi "Aleatu gabeko burdinazko edo altzairuzko profilak" eta 5,5 milioi "Xaflaz, barraz, profilez, hodiz eta burdinurtuzko, burdinazko edo altzairuzko antzeko eraikuntzez egindako eraikuntzak" dira; hiru produktu horietaz gain, garrantzitsuenak automobilaren sektorean kontzentratzen dira, 37 milioi eurotik gora, herrialde horretara esportatutako guztiaren laurdena izanik.

Euskal AEko esportazioen rankinga herrialdeka, urteko metatua (p). Martxoa 2024

	Herrialdea	Mila euro	Estaldura-tasa
	ESPORTAZIOAK GUZTIRA	7.528.986	115,7
1	Frantzia	1.329.873	246,2
2	Alemania	1.122.366	117,5
3	Erresuma Batua	507.047	326,2
4	Estatu Batuak	496.902	97,1
5	Italia	468.031	135,1
6	Belgika	357.165	255,4
7	Portugal	349.601	155,7
8	Herbehereak	248.631	92,4
9	Polonia	203.334	165,8
10	Mexiko	188.739	62,1
11	Txinako Herri Errepublikak	176.297	43,3
12	Txekiar Errepublika	118.429	287,2
13	Norvegia	115.151	147,2
14	Suitza	111.438	274,5
15	Turkia	109.998	200,6
16	Suedia	102.649	113,8
17	Maroko	84.540	300,3
18	Austria	79.929	128,4
19	Danimarka	71.976	281,7
20	Brasil	61.509	18,5
21	Hungaria	58.866	207,2
22	Errumania	58.573	143,1
23	Eslovakia	54.358	121,1
24	Saudi Arabia	50.119	39,1
25	Finlandia	48.445	88,3

(p)Behinbehineko datuak

Estaldura-tasa = herrialde baten esportazioen eta inportazioen artean dagoen erlazioa neurtzen du

Data 2024ko Maiatzaren 20a

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika

2024KO LEHEN HIRUHILEKOA: kanpo-merkataritzaren saldoak 1.021,7 milioi euroko superabita izan du, eta estaldura-tasa % 115,7koa izan da

2024ko lehen hiru hilabeteetan eta Euskal AEko esportazioetan urte arteko % 15,9ko jaitsiera erregistratu da, hau da, aurreko urteko aldi berean baino 1.427,3 milioi euro gutxiago. Aldi horretarako esportazioen zenbatekoa 7.529 milioikoa da, eta Bizkaiak (2.871 milioi) esportatzen du gehien (guztizkoaren % 38); ondoren, Gipuzkoak (2.358 milioi) eta Arabak (2.300 milioi).

Arabako esportazioek izan dute urte arteko jaitsierarik handiena (-% 19,6), 2023an baino 559 milioi gutxiago. Gipuzkoan % 12,3 jaitsi da (331,8 milioi gutxiago) eta Bizkaian % 15,7 (536,5 milioi gutxiago).

Esportatutako produktu-motari dagokionez, "*Produktu energetikoen*" esportazioak pixka bat hazi dira (% 0,3), aurreko urteko hiruhileko berean baino 1,3 milioi gehiago. Aitzitik, "*Produktu ez-energetikoen*" % 16,9 egin dute atzera.

Gehien saldutako hamar produktuek guztizkoaren % 39,8 biltzen dute, 2.994,5 milioirekin. "*10 pertsona baino gutxiagoko turismoak*" dira, aldi horretan, Euskal AEko esportazio-bolumen handieneko partida, 614,0 milioi esportatu baititu, eta urte arteko aldakuntza-tasa -% 27,8koa da.

Esportatzeko duten grinagatik gehien nabarmentzen diren produktuen artean, lehen aipatutakoa ez da tonika negatiboa duen bakarra; egoera berean daude "*Salgaiak garraiatzeko ibilgailu automobilak*" (-% 27,6), "*Kautxuzko pneumatiko berriak*" (-% 21,3), "*Petrolio-olio finduak*" (-% 9,4), "*Soldadurarik gabeko burdinazko edo altzairuzko hodi eta profil hutsak*" (-% 38,6), "*Aleatu gabeko burdinazko edo altzairuzko profilak*" (-% 29,3), "*Altzairu herdoilgaitzezko barrak eta profilak*" (-% 43,0) ahaztu gabe.

Euskal AEko esportazioen rankinga, arantzel-partiden arabera, urteko metatua (p). Martxoa 2024

	Kodea	Izendapena	Mila euro
		ESPORTAZIOAK GUZTIRA	7.528.986
1	8703	10 pertsona baino gutxiagoko turismoak	614.030
2	8708	Automobilentzako zati eta osagarriak	596.360
3	8704	Zamak garraiatzeko ibilgailu automobilak	446.967
4	2710	Petrolioaren olio finduak	409.949
5	4011	Kautxuzko pneumatiko berriak	317.439
6	7304	Hodiak eta profilak hutsak, soldadurarik gabe, burdinazko edo altzairuzkoak	134.981
7	7216	Burdinazko edo aleatu gabeko altzairuzko profilak	133.018
8	8481	Txorrotetarako artikulak, balbulak eta antzekoak tutuetarako	130.879
9	8603	Automotorrak, trenbideetarako eta tranbia autopropulsatuetaarako	108.036
10	7326	Burdina edo altzairuzko gainerako manufaktura	102.885
11	8411	Turborreaktoreak, turbopropulsatzaileak eta gainerako gas-turbinak, bere piezak eta osagaiak barne	87.952
12	8504	Transformadore elektrikoak, bihurtzaile estatikoak eta erreaktantzia-bobina	87.323
13	7228	Gainerako altzairu aleatuen barrak eta profilak eta zultzeko barra hutsak	76.614
14	8428	Igogailuak, eskailera mekanikoak, garraiagailuak, etab.	73.531
15	7606	0,2 mm baino gehiagoko lodiera duten aluminiozko xafiak eta tirak	70.826
16	7222	Altzairu herdoilgaitzezko barra eta profilak	68.205
17	8702	Gidaria barne hamar pertsona edo gehiago eramateko ibilgailu automobilak	67.026
18	3826	Biodiesela eta bere nahasketak, petrolio edo mineral bituminoso oliorik gabe edo pisan % 70etik beherako edukiarekin	65.687
19	8537	Koadroak, taulak eta kontrolerako edo elektrizitate-banaketarako euskarriak	63.837
20	9990	Aduana-tarifan berariaz jasota ez dauden merkantziak	63.805
21	7325	Galdaketa, burdina edo altzairuzko beste manufaktura moldeatu batzuk	63.120
22	7306	Burdinako edo altzairuko beste tutu batzuk eta profil hutsak	62.351
23	8301	Metal arruntzeko giltzarapo, sarraila, morroilo eta giltzak	62.001
24	8483	Transmisio-ardatzak, kojineteak, engranajeak, engrageak, etab.	59.800
25	2709	Petrolioaren edo mineral bituminosoaren olio gordinak	59.630

(p)Behinbehineko datuak

Data 2024ko Maiatzaren 20a

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika


25 partida nagusien barruan, hazkunderik nabarmenenak honako produktu hauetan erregistratu dira: "Petrolioaren edo mineral bituminosoaren olio gordinak" (% 1.836,2), "Turborreaktoreak, turbopropultsaileak eta gainerako gas-turbinak, horien zatiak eta osagaiak barne" (% 38,6), "Hamar pertsona edo gehiago garraiatzeko ibilgailu automobilak, gidaria barne" (% 45,9) eta "Ibilgailu automobilen zatiak eta osagarriak" (% 4,3).

Esportazioen xede diren herrialdeen sailkapenaren buruan Frantzia dago (1.330 milioi), ondoren Alemania (1.122 milioi) eta, urrunago, Erresuma Batua (507 milioi), Estatu Batuak (497 milioi) eta Italia (468 milioi). Horrela, bost herrialdeen artean esportazioen % 52 biltzen dira.

Euskal AE osorako inportazioen metatua 6.508 milioi euro ingurukoa da. Zifra hori urte artean alderatuz gero, ikusten da 2023ko aldi berean erregistratutakoa baino 620 milioi txikiagoa dela. % 8,7ko jaitsiera hori, hein handi batean, Bizkaiko lurraldean, 3.867,3 milioiko inportazioekin, % 6,9ko jaitsiera izan delako gertatu da, hau da, aurreko urteko aldi berean baino 285,9 milioi gutxiago. Inportazioek ere behera egin dute Araban (% 13,2, 211,5 milioi euro gutxiago) eta Gipuzkoan (% 8,9ko beherapena, urte arteko 123 milioi euroko atzerapenarekin). Inportatutakoaren balioa 1.388,3 eta 1.251,7 milioi eurokoa da, hurrenez hurren, bi lurralde horietan.

"Produktu energetikoen" inportazioa aurreko urteko aldi berekoa baino % 6 handiagoa da, eta "Produktu ez-energetikoena" % 13,3 txikiagoa.

Euskal AEko ondasunen kanpo-merkataritzak, 2024ko lehen hiru hilabeteetan, 1.021,7 milioi euroko saldo positiboa izan du, eta estaldura-tasa positiboa mantentzea ahalbidetzen du, % 115,7koa.



Informazio-oharra

[Kanpo-merkataritzako datu esploratzailea](#)

Eustatek jakinarazten du bistaratzeko tresna berri bat eskaintzen duela, Euskal AEko ondasunen nazioarteko merkataritzari buruzko informazio guztia modu bisual eta intuitiboan eskuratzeko aukera ematen duena, orain arte eskainitakoaren osagarri.

Gogora dezagun, halaber, [Elkano](#) erabil dezakezula kanpo-merkataritzari buruzko datuen kontsulta xehatuak eta eguneratuak egiteko.

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística
C/ Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz
Prensa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62